

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2024ko martxoa

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak %12,7 gehitu dira eta apartamentu turistikoetan %49,1, 2024ko martxoan

Aterpetxe turistikoek ere %35,6ko hazkundera izan dute sarreretan

Euskal AEko **landa-ostatueta**, **2024ko martxoan**, sarrerak %12,7 gehitu dira, aurreko urteko hil beraren aldean, eta gaudiak %42,0. Urte arteko hazkunde horiekin, 12.199 bidaiari-sarrera izan dira eta 31.415 gaudi izan dira martxoan. Gogoan izan behar da aurten martxoan sartu direla Aste Santuko lau egunak.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Martxoa 2024

	Sarrerak		Gaudiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2024/3	m/m-12 (%)	2024/3	m/m-12 (%)	2024/3	2023/3	2024/3	p.p. *	2024/3	p.p. *
EUSKAL AE	12.199	12,7	31.415	42,0	2,58	2,04	25,1	6,6	29,3	7,5
Estatukoak	10.479	6,7	27.327	38,3	2,61	2,01	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.720	71,1	4.088	73,7	2,38	2,34	-	-	-	-
Araba/Álava	2.414	38,7	6.152	69,3	2,55	2,09	19,6	7,7	23,3	9,1
Estatukoak	2.191	40,3	5.819	74,6	2,66	2,13	-	-	-	-
Atzeritarrak	223	24,6	333	10,6	1,49	1,68	-	-	-	-
Bizkaia	3.674	43,0	8.992	57,4	2,45	2,22	25,7	8,4	30,7	8,8
Estatukoak	3.206	38,0	8.135	55,4	2,54	2,25	-	-	-	-
Atzeritarrak	468	91,0	857	79,7	1,83	1,95	-	-	-	-
Gipuzkoa	6.111	-6,2	16.271	27,4	2,66	1,96	27,7	4,9	31,6	5,7
Estatukoak	5.082	-14,3	13.373	19,5	2,63	1,89	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.029	77,1	2.898	83,9	2,86	2,71	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hila bate berarekiko portzentaje zehazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hila batean izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hila bate berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Apirilaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Atzerriko sarrerak Euskal AEko landa-ostatueta 2024ko martxoan izandako sarrera guztien %14,1 izan dira, eta aurreko urteko martxoaren aldean %71,1 hazi dira. Ostatu-gauen kasuan, atzeritar jatorrikoak guztizkoaren %13,0 dira, %73,7 gehiago 2023ko martxoarekin alderatuta.

Lurralde historikoen arabera, 2024ko martxoan, sarreren urte arteko hazkundeak %43,0ra iritsi dira Bizkaian, %38,7ra Araban, eta %6,2ra Gipuzkoan. Ostatu-gauei dagokienez, igoerak %69,3 izan dira Araban, %57,4 Bizkaian eta %27,4 Gipuzkoan.

Euskal AEko establezimendu mota horretako batez besteko egonaldia 2,58 egunekoa izan da martxoan – balio hori 2023ko hil berean 2,04 izan zen –. Batez besteko egonaldia bidaiariek gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean batez beste ematen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn egiten duten egonaldiaren guztizko iraupenari.

Plazen eta gelen araberako okupazio-mailak ehuneko 6,6 eta 7,5 puntu igo dira, hurrenez hurren, eta %25,1ean kokatu dira plazen arabera neurtuta, eta %29,3an gelen arabera neurtuta.

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2024ko martxoan 15.714 sarrera izan dira, eta 54.189 gualdi izan dira. Aurreko urteko martxoarekin alderatuta, sarrerak %49,1 gehitu dira eta gualdiak %37,1.

Apartamentu turistiko esaten zaio blokearen edo multzoaren modalitatean kudeatzen duen ustiapeneko enpresa-unitate baten pean eskaintzen den ostatu-unitate bakoitzari. **Ez dira epigrafe honetan sartzen turismo-erabilerako etxebizitzak**, arrazoi turistikoengatik aldi baterako eskaintzen, merkaturatzen edo lagatzen diren etxebizitza partikularrak.

Sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. Martxoa 2024

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamenduka	
	2024/03	m/m-12 (%)	2024/03	m/m-12 (%)	2024/03	2023/03	2024/03	p.p. *	2024/03	p.p. *
EUSKAL AE	15.714	49,1	54.189	37,1	3,45	3,75	36,4	7,4	63,9	10,0
Estatukoak	11.677	40,9	37.347	35,1	3,20	3,34	-	-	-	-
Atzerritarrak	4.037	79,2	16.842	41,6	4,17	5,28	-	-	-	-
Araba/Álava	828	-46,1	9.015	24,5	10,89	4,71	28,2	5,7	80,0	29,5
Estatukoak	765	-45,3	6.287	26,2	8,22	3,56	-	-	-	-
Atzerritarrak	63	-54,3	2.728	20,6	31,00	16,41	-	-	-	-
Bizkaia	10.811	74,9	23.766	71,8	2,20	2,24	36,4	11,5	47,1	12,6
Estatukoak	7.847	62,8	15.781	56,0	2,01	2,10	-	-	-	-
Atzerritarrak	2.963	117,6	7.986	115,0	2,69	2,73	-	-	-	-
Gipuzkoa	4.076	44,4	21.407	16,0	5,25	6,54	41,5	3,5	74,1	1,2
Estatukoak	3.065	48,2	15.280	21,8	4,99	6,07	-	-	-	-
Atzerritarrak	1.011	34,1	6.128	3,6	6,06	7,84	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteaz izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Apirilaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera guztien %25,7 eta gualdi guztien %31,1 atzerriko bisitariei dagokie, 2024ko martxoan urte arteko %79,2ko eta %41,6ko igoerak izan ondoren, hurrenez hurren.

Apartamentu turistikoetako batez besteko egonaldia 3,45 egunekoa izan da 2024ko martxoan, hau da, 2023ko martxokoa (3,75 egun) baino txikiagoa Euskal AE osoan. Gipuzkoan mota horretako establezimenduetako batez besteko egonaldia 5,25 egunekoa izan da, Araban 10,89 egunekoa eta Bizkaian 2,20 egunekoa.

Euskal AEko plazen okupazio maila %36,4koa izan da, 2023ko martxoan baino ehuneko 7,4 puntu gehiago. Apartamentuen okupazio mailak ehuneko 10,0 puntu egin du gora, eta %63,9koa izan da.

Euskal AEko **Aterpetxe turistikoei** dagokienez, 2024ko martxoan %35,6ko urte arteko hazkundea izan da sarreretan, eta 18.377 ostatu-gau izan dira guztira, 32.592 guztira. Bizkaian 20.447 gualdi izan dira, Gipuzkoan 11.693 eta, azkenik, Araban 452.

Sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko aterpetxe turistikoetan. Martxoa 2024

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-maila plazaka (%)	
	2024/03	m/m-12 (%)	2024/03	m/m-12 (%)	2024/03	2023/03	2024/03	p.p.
EUSKAL AE	18.377	35,6	32.592	35,3	1,77	1,78	32,2	5,6
Estatukoak	9.373	28,9	15.687	23,3	1,67	1,75	-	-
Atzeritarrak	9.004	43,5	16.905	48,8	1,88	1,81	-	-
Araba/Álava	244	-54,6	452	-54,7	1,85	1,85	9,1	-24,4
Estatukoak	232	-55,9	430	-56,1	1,85	1,86	-	-
Atzeritarrak	12	3,6	22	16,5	1,88	1,67	-	-
Bizkaia	11.139	75,8	20.447	74,9	1,84	1,84	38,8	13,1
Estatukoak	5.571	71,3	9.385	63,8	1,68	1,76	-	-
Atzeritarrak	5.568	80,5	11.062	85,6	1,99	1,93	-	-
Gipuzkoa	6.993	4,8	11.693	2,6	1,67	1,71	26,8	-0,2
Estatukoak	3.569	2,2	5.872	-2,3	1,65	1,72	-	-
Atzeritarrak	3.424	7,7	5.821	8,1	1,70	1,69	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Apirilaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Ostatu mota horietako egonaldien batez besteko iraupena, 2024ko martxoan, 1,77 egunekoa izan da Euskal AE osoan; eta plazen okupazio maila, urte batetik bestera ehuneko 5,6 puntu igo ondoren, %32,2ra iritsi da.

2024ko Aste Santua

Landa-ostatuetan, Aste Santuan, ostegunetik igandera (4 gau), sarrerak murriztu egin dira 2023koaren aldean (%7,8), apirilean egindakoa, eta gualdiak %1,9 jaitsi dira Euskal AE osoan.

Lurralde historikoetan, portaera desberdina izan da. Araban gehitu egin dira bai sarrerak bai gualdiak, hurrenez hurren, %17,4 eta %8,3; Bizkaian, aldiz, %15,7 galdu dira 2023ko Aste Santuan izandako sarrerak, eta %4,0 jaitsi gualdiak; Gipuzkoan, %9,1 jaitsi dira lehenengoak eta %4,7 bigarrenak.

Euskal AEko landetxeetako sarrerak, gualdiak eta okupazio-mailak. Aste Santua (*). 2024

	Sarrerak		Gualdiak		Betetze-mailak (%)			
					plazen arabera		gelaka	
	2024	2024/2023 (%)	2024	2024/2023 (%)	2024	p.p.	2024	p.p.
EUSKAL AE	3.000	-7,8	11.542	-1,9	62,8	-2,5	68,7	2,2
Estatukoak	2.735	-0,9	10.690	0,2	-	-	-	-
atzeritarrak	265	-46,2	852	-22,0	-	-	-	-
ARABA/ALAVA	493	17,4	2.585	8,3	57,9	6,7	67,9	17,3
BIZKAIA	867	-15,7	3.233	-4,0	60,9	-3,3	65,6	3,4
GIPUZKOA	1.640	-9,1	5.724	-4,7	66,5	-7,6	71,2	-7,3

(*)Aste Santua: Ostegunetik igandera (4 gau).

e.p. = aurreko urteko aldi baliokidearekiko aldea ehuneko-puntutan

Data 2024ko Apirilaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Plazen okupazio maila %62,8koa izan da eta gelena %68,7koa aurtengo Aste Santuan. Kopuru horiek aurreko urtekoak baino ehuneko 2,5 puntu txikiagoak dira plazen arabera neurtzen bada, eta 2,2 puntu handiagoak gela arabera neurtzen bada.

Apartamentu turistikoen kasuan, 2023ko Aste Santuarekiko urte arteko aldakuntzak %3,1 izan dira sarreretan, eta %-0,8 gualdietan.

2023ko Aste Santuaren aldean, sarrerak %53,6 jaitsi dira Araban; Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, %21,9 eta % 7,1 igo dira, hurrenez hurren. Ostatu-gauen kopuruari dagokionez, berriz, %1,8ko igoera izan da Bizkaian, eta %9,4ko eta %0,3ko jaitsierak Araban eta Gipuzkoan.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerak, gualdiak eta okupazio-mailak. Aste Santua (*). 2024

	Sarrerak		Gualdiak		Betetze-mailak (%)			
					plazen arabera		apartamentuak	
	2024	2024/2023 (%)	2024	2024/2023 (%)	2024	p.p.	2024	p.p.
EUSKAL AE	3.085	3,1	10.548	-0,8	54,2	-4,2	79,2	-0,2
Estatukoak	2.325	2,6	7.947	-1,6	-	-	-	-
atzeritarrak	760	4,9	2.601	2,0	-	-	-	-
ARABA/ALAVA	178	-53,6	1.519	-9,4	36,8	-2,3	89,5	16,3
BIZKAIA	1.963	7,1	4.924	1,8	57,2	-8,1	65,4	-3,4
GIPUZKOA	944	21,9	4.105	-0,3	60,9	-2,1	88,6	-2,7

(*)Aste Santua: Ostegunetik igandera (4 gau).

e.p. = aurreko urteko aldi baliokidearekiko aldea ehuneko-puntutan

Data 2024ko Apirilaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Okupazio-mailak %54,2an kokatu dira plazen arabera neurtuz gero, eta %79,2an apartamentuen arabera neurtuz gero. 2023ko Aste Santuari dagokionez, zifra horiek 4,2 puntu egin dute behera plazen kasuan, eta 0,2 puntu apartamentuen kasuan.

Informazio-oharra

ETHren erantzun-tasa **%97,6koa** izan da hilabete honetan landa-ostatueta, **%90,0koa** turismo-apartamentuetan eta **%85,7koa** aterpetxe turistikoetan. Eustatek eskerrak eman dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: Tlf: 945 01 75 62